OINARRIAK 2022-26	EZAUGARRIAK	DEFINIZIOA
Euskaldun	Euskal hiztun osoa eta kontzientea	Euskaraz bizitzea erabaki du kontzienteki eta euskararen erabilera-eremuak zabaltzeko engaiamendua hartu du. Euskarak erregistro ezberdinak dituela ezagutzen du eta hein batean erabiltzen ditu: euskalkiak, batua, formala, ez formala,... Euskara naturaltasun osoz erabiltzen du, ahoz eta idatziz. Euskararen erabilpenari atxikia da. Hizkuntza ekologiaren ikuspundutik, ulertzen du hizkuntza eta hizkuntzen aldaera guztiak munduko errealitateak ezagutzeko ezinbestekoak direla, eta gisa horretan, norbere burua eta jendartea aberasteko. Euskararen egoera soziolinguistikoaz konziente da.
	Euskal identitate, kultura eta historia ezagutu eta bizi dituena	Euskal nortasunaren eta kulturaren bereizgarriak eta ezaugarriak ezagutzen ditu (Herria, historia, ohidurak...), errepresentazio sinbolikoak ezagutu eta bizi dituelako. Horrez gain, euskal nortasuna eta kultura zaintzeko, biziberritzeko eta zabaltzeko jarrera eta engaiamendua du, euskal kulturako ekimenetan parte hartuz, hura sustatuz eta euskal kultura eta nortasunaren inguruko adierazpide berriak sortuz. Belaunaldi desberdinen arteko elkarrekintzan eta kulturaren ezagutza eta transmisioan oinarrituz, herrian bizitzeko eta eragiteko grina du.
	Eleanitza	Beretzat hizkuntzek balio soziala dute eta mundu ikuskera bat biltzen eta zabaltzen dute. Hizkuntza bat kolektibo sozial bateko identitate erreferentea dela badaki eta horren baitan eraikiko ditu argumentazioak, iritziak, usaiak eta sinismenak, bertzeak bertze. Prozesu horretan, Euskal Herrian nagusiki gailentzen diren gaztelera eta frantsesarekin egiten du topo. Alabaina, Euskal Herrian bizitzeko hiru hizkuntzak ikastearen beharraz jabetzen da, egunerokotasunean maila berean ez daudela konsziente delarik. Bide horretatik, euskararen ofizialtasunaren garrantziaz ohartzen da, euskararen normalizazioaren bidean. Horiek horrela, eta euskara ardatz izanik, Euskal Herrian bizi diren hizkuntzekiko begirunezko jarrera inklusiboa barneratzen du.
Ongi izatea - Ongi den pertsona	Barne askatasuna duena,	Bere burua ezagutzen du, errespetatzen du eta maite du (ezaugarriak, pasioak, ahalmenak,mugak, beharrak eta hobetzekoak). Gai sentitzen da besteen aitzinean den bezalakoa izateko eta berari dagozkion erabakiak hartzeko, besteak aintzat hartuz baina menpeko bilakatu gabe. Besteen aitzinean den bezala izaitea onartzen du eta Besteak onartzen ditu diren bezala Bere bizitza proiektua eraikitzen doa bere inguruarekin elkar ekintzan.
	Ongiizate emozionala	Emozioen kontzientzia du eta emozio horiek nola kudeatu ikasten ari den heinean badaki horiekiko beharrezko distantzia hartzen. Erresilientziaz erantzuten die egokitzen zaizkion egoera zailei; izan ere, onartu egiten du errealitatea, bizi duena eta hortik ateratzen du indarra, egoera eta pertsona bakoitzari erantzun egokia emateko. Emozioen, afektibitatearen, mintzoaren, erritmo biologikoen kontutan hartzeko gaitasuna du.
	Ongizate fisikoa zaintzen duena - Nork bere burua artatzeko gai izatea	Bizitza orekatua izatearen garrantziaz jabetzen da eta manera arduratsuan jarduten du (bakoitza bere errealitatetik abiatuz).
	Konfiantza duena	Konfiantza du bere buruarengan, besteengan, eta oro har bizitzarengan, eta akatsak ikasteko bide bezala ikusten ditu. Barne konfiantza hori duelako aurre egin nahi izaten die bere ardurapeko erronkei.

OINARRIAK 2022-26	EZAUGARRIAK	DEFINIZIOA
Autonomia	Jakinmina duena	Errealitatea ulertzeko eta etengabe ikasten jarraitzeko kuriositatea du. Galderei erantzun ahal izateko informazioa bilatzeko prozesuetan aktiboki inplikatzen da.
	Analitiko-kritikoa - autonomia kognitiboa	Bere iritzi propioa sortzeko gaitasuna du. Metodologiaz jabetzen da. Besteen iritzia konfrontatuz berea eraikitzen du.
	Erabakitzailea	Egoera-arazo-erronkei aurre egiteko konponbideak ausardiaz eta erantzukizunez bilatzen eta ezartzen ditu, ikuspegi malgu eta irekiarekin, edozein iturri baliatuz. Erantzukizuna eta antolaketa gaitasuna du. Bere ardura eta betebeharretaz kontziente da.
Eraldatzailea	Humanoa / Inklusioa	Giza duintasuna, askatasuna, elkartasuna, aniztasuna justizia eta berdintasuna oinarrizko printzipio etikoak direla pentsatzen du. Pertsonen arteko desberdintasunak errespetatzen ditu eta eskubide berdintasuna (generoa, jatorria, klasea soziala, adina,...) bereizkeriarik gabe errespetatu eta defendatzen du.
	Sortzailea	Arazo eta erronkei aterabide berritzaileak aurkitzeko errealitatea ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du. Bide berriak urratzen ditu eta ideiak sortzen ditu.
	Solidarioa	Norbanakoaren, jendartearen edo ingurumenaren behar edo erronkez jabetzen da. Horiekiko engaiamendua agertzen du, ekarpen aktiboa eginez. Interes propioak baztertu eta elkar laguntza, babesa eta talde lana lehenesten ditu.
	akulatzaile / ekintzailea	Kolektiboaren eta parekotasunaren indarretik, mundua eta inguruaren ikuspegi kritiko sortzailea du. Kuraiaz engaiatzen da mundua aldatzeko helburuarekin.
Kooperatiboa / kolektiboa	Lankidetzan diharduena	Adostu eta partekatutako helburu bat lortzeko lanean taldekideetaz arduratzen da, laguntza eskaini eta eskatzen du, taldekideen arteko konfiantza eraiki eta talde pertenentzia sustatzen du. Elkarlanerako eta elkartasunezko jarrerak garatzen ditu.
	Enpatikoa	Parekoak sentitzen duen emozioa jaso eta ulertzen du, eta besteen emozioak epaitu gabe baldintzarik gabe onartzen ditu.
	Asertiboa : entzuteko, errespetatzeko, ideien eta praktiken erkatzeko gai izan	Besteen iritzi, ideia eta emozioak errespetatzen ditu. Norbere ideia eta iritziekin fidela da, eta besteak ez mintzeko komunikazio baliabideak baliatzen ditu.
	Erantzunkidea	Talde lanaren emaitza bakoitzaren parte hartze aktiboaren araberakoa dela jabetzen da.
Izadian sustraitua	Izadiaren ezagutza	Inguramenaren eta biodibertsitatearen ezaugarriak ezagutzen eta babesten ditu.
	Arduratsu	Inguramenaren mugetaz, klimaren bilakaeraz eta kontsumo jarreren eraginaz jabetzen da.
	Izadia elkarrekintzan	Jendartearen bilakaera izadiaren babesteari lotua dela kontziente izatea.